

**BERRITU EGIN DA UDALA ETA GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ARTEKO AKORDIOA: OÑATIKO EAJ-PNVK HAINBAT HOBEKUNTZA PROPOSATU DITU HERRITARREENTZAT**

**Jeltzaleek proposatu dute, batetik, hobaria ematea eta faktura murriztea kontsumo arduratsua egiten duten familiei eta, bestetik, urteko 10.000 euro bideratzea energia-pobrezian edo gizartean larrialdi-egoeran bizi diren herritarren gastua murrizteko**

Maiatzaren 31ko ohiko osoko bilkuran, udal-batzak aho batez onartu zuen Udalaren eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren arteko akordioa berritzea beste 10 urterako, uraren ziklo integralaren kudeaketarako.

EAJ-PNVren udal-taldea oso pozik dago EH Bilduren gobernuak hitzarmena luzatzea erabaki duelako: “EH Bilduren gaur egungo udal-gobernuak erabaki du uraren zikloaren kudeaketa integrala Ur Kontsortzioaren esku uzten jarraitzea, eta, era horretan, duela 10 urte orduko EAJ-PNVren udal-gobernuak ekin zion bideari jarraitu dio”. Izan ere, 2008ko urrian sinatu zuen hitzarmena lehenengo aldiz orduko EAJ-PNVren udal-gobernuak Kontsortzioarekin. Erabaki hori, ordea, kritikatu egin izan du egungo EH Bilduren udal-gobernuak.

Edonola ere, Oñatiko EAJ-PNVk gaurkoan balioan jarri nahi izan du, eta gogora ekarri zergatik sinatu zen orain 10 urteko lehen akordioa eta zer onura ekarri dion Oñatiri: “Lehenik eta behin, uraren kudeaketa enpresa publiko baten esku utzi zen (pribatua ez), eta Oñatiko udala haren bazkide bihurtu zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta 73 udaletxearekin batera. Bigarrenik, Oñatiko udalak 3.3 milioi aurreztu ditu inbertsioetan, Ur Kontsortzioak egin behar izan dituelako. Era horretan, gainera, saihestu egin da urtero kontrolik gabe milioika ur litro galtzea eta, bide batez, ingurumena jasangarriagoa bihurtu da”.

Orain, hitzarmena 2028ra arte luzatuta, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak jarraituko du beharrezko inbertsioak egiten (3.000.000 milioi euro). Oñatik, halaber, 841.000 euro jasoko ditu lankidetzaz sarritzat.

Hitzarmena berritu denez eta Udalak diru-sarrera hori izango duenez, EAJ-PNVren udal-taldeak zera proposatu dio EH Bilduren udal-gobernari: herritarrei 10 urtean 400.000 euro itzultzea. Jeltzaleek zehaztu dute 300.000 euro (urteko, 30.000 euro) bideratu behar direla uraren kontsumo arduratsua sustatzeko. Horretarako, hobaria emango zaie eta faktura merkatuko zaie ura ardurarekin kontsumitzen duten familiei (batez bestekoa baino gutxiago kontsumitzen dutenei). Gainera, proposatu dute geratzen diren 100.000 euroak (urteko, 10.000 euro) energia-pobrezian edo gizartean larrialdi-egoeran bizi diren herritarren gastua murrizteko bideratzea.

“Oñatiko EAJ-PNVren udal-taldeak bere burua eskaini dio EH Bilduren udal-gobernari eta Gipuzkoa Ur Kontsortzioari proposamen horien aplikazio teknikoa elkarlanean gauzatzeko; modu horretan, hobariak 2019ko lehen ordainketan ezarri ahal izango dira”, gehitu dute jeltzaleek.

OÑATIKO EAJ-PNVREN UDAL TALDEA

Oñatin, 2018ko ekainaren 13an



## **EAJ-PNV DE OÑATI PROPONE MEJORAS DESTINADAS A LA CIUDADANÍA EN LA RENOVACIÓN DEL ACUERDO ENTRE EN EL AYUNTAMIENTO Y EL CONSORCIO DE AGUAS DE GIPUZKOA**

- **Entre ellas plantea por una parte bonificar y reducir las facturas de las familias que hagan un consumo responsable y por otra parte, propone destinar 10.000€ anuales para apaliar los gastos de las personas que viven en situaciones de pobreza energética o emergencia social**

El pasado 31 de mayo la corporación municipal de Oñati aprobaba por unanimidad la renovación, por otros 10 años, del acuerdo entre el Ayuntamiento y el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para la gestión del ciclo integral del agua.

EAJ-PNV de Oñati se ha mostrado muy satisfecho con la decisión adoptada por EH Bildu de alargar dicho acuerdo: “el actual gobierno municipal ha decidido seguir delegando la gestión integral del agua al Consorcio, siguiendo así con la vía abierta hace 10 años por EAJ-PNV”. Y es que en octubre del 2008, el entonces gobierno municipal de EAJ-PNV firmaba por primera vez un acuerdo de 10 años con el Consorcio de Aguas, una decisión que posteriormente fue muy criticada por EH Bildu.

No obstante, EAJ-PNV de Oñati recuerda hoy las principales razones y beneficios que trajo la firma de aquel primer acuerdo : "En primer lugar que la gestión se delegaba en una empresa pública (no privada) de la que, junto con la Diputación Foral y otros 73 Ayuntamientos, el propio Ayuntamiento de Oñati pasó a ser socio; también ha supuesto el ahorro de 3,3 millones de euros en inversiones que en vez de ser realizadas por Ayuntamiento de Oñati los ha realizado el propio Consorcio de Aguas y, además, ha evitado el despilfarro incontrolado de millones de litros en fugas de agua al año lo que ha favorecido a la sostenibilidad del medioambiente".

Ahora, con la renovación del acuerdo hasta el 2028, el Consorcio de aguas volverá a hacerse cargo de las inversiones necesarias, cuyo coste asciende a 3 millones de euros y Oñati recibirá además un canon de colaboración de 841.000€.

Así pues, en relación a la renovación del acuerdo y al ingreso de dicha cantidad de dinero, EAJ-PNV plantea devolver 400.000€ del dinero percibido a la ciudadanía en forma de bonificaciones a lo largo de 10 años. El grupo jeltzale plantea concretamente destinar 300.000€, es decir, 30.000€ por año a promover el consumo responsable, bonificando y reduciendo las facturas de las familias que hagan un consumo responsable, entendido este como un consumo inferior a la media. Los 100.000€ restantes (10.000/año) plantea destinarlos a familias en situación de pobreza energética o emergencia social, con el fin de apaliar sus gastos.

“El grupo municipal de EAJ-PNV de Oñati se ha ofrecido a colaborar con el gobierno municipal y el Consorcio de Aguas para desarrollar la aplicación técnica de dichas propuestas con el fin de que dichas bonificaciones se puedan empezar a aplicar en el primer pago del 2019”, ha concluido EAJ-PNV de Oñati.

GRUPO MUNICIPAL DE EAJ-PNV DE OÑATI

En Oñati, 13 de junio de 2018

---